

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

6482

EBAZPENA, 2021eko abenduaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa. Kolektibo kalteberak» izeneko programa finantzatzeko laguntzen deialdia. Laguntza horiek Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan kokatzen dira.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2021eko abenduaren 21eko bilera hartutako erabakiaren bidez, «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa. Kolektibo kalteberak» izeneko programa finantzatzeko laguntzen deialdia onartu du, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan. Maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartutako Lanbideren Estatutuen 10.2 artikulua o) letran xedatutakoaren arabera, organismo autonomo horretako zuzendari nagusiari dagokio deialdi hori argitaratzea.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Argitara ematea, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan, «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa. Kolektibo kalteberak» izeneko programa finantzatzeko laguntzen deialdia, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2021eko abenduaren 21eko batzarrean hartutako erabakiaren bidez onetsitakoa. Ebazpen honen eranskin gisa jaso da erabaki hori.

Bigarrena.— Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak laguntza-deialdia onartzeko hartu duen erabakiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.— Jakinaraztea, deialdia onartzeko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 21a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE.

ERANSKINA

LAGUNTZEN DEIALDIA, «BERROREKARAKO ETA EKITATERAKO LURRALDE-PROIEKTU BERRIEN PROGRAMA. KOLEKTIBO KALTEBERAK» IZENENKO PROGRAMA FINANTZATZEKO EUROPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION EU FUNTSAK FINANTZATUTAKO SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN BARRUAN

2020az geroztik jasaten ari garen osasun-errealitateak eta horren azpian dagoen eragin ekonomiko-sozialak berariazko neurriak hartzea eskatzen diete administrazioei, ahal den neurrian, batez ere biztanleria kalteberenarengan dituzten ondorio negatiboak arintzeko.

2020ko uztailaren 21eko Kontseilu Europarrak irismen handiko neurri sorta bat adostu zuen, une historiko horretan Europar Batasunean konbergentzia, erresilientzia eta transformazioa bultzatuko duten aurrekaririk gabeko ahaleginaren eta planteamendu berritzaile baten beharraz jabetuta.

Aipatu Europako Kontseiluak onartutako Europako suspertzerako tresnak («Next Generation EU») 2021-2023 aldirako funts ekonomikoak ematen dizkie estatu kideetako administrazioei, transferentzia eta mailegu gisa.

Suspertzerako Europako Funtsaren finantza-baliabideak Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren bidez aplikatuko dira. Plan hori Ministro Kontseiluaren 2021eko apirilaren 27ko Erabakiaren bidez onartu zen, eta 30 osagai edo ekintza-ildotan egituratzen da.

Halaber, «Lan merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak» izeneko 23. osagaian proposatutako erreformen eta inbertsioen barruan 4. inbertsioa sartzan da, «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa», «Kolektibo kalteberak» izeneko inbertsio-lerroarekin.

Inbertsio-lerro horren bidez berroreka sustatu nahi da, enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboentzako laneratze-proiektu integratuak garatuz, lurralde osoko biztanle guztientzako hazkunde orekatua eta jasangarria sustatzeko, kolektiboen arteko eta eskualdeen arteko desberdintasunak arinduz.

Horren helburua da gizarteratzeko eta laneratze beharrian handiena duten biztanleei lan-esperientzia izateko aukera ematea, eta esperientzia horri prestakuntza-jarduerak eta banakako laguntza gehituta laneratze egonkorragoa ematea.

Deialdi honen xede diren prestakuntza-diseinuak eta enplegu-proiektuek «erabilgarritasun sozialeko eremu» gisa definituta egon behar dute; estalita ez dauden gizarte-arloko beharrak estaltzera edo arintzera zuzenduta daude, edo kalitate eta interes publikoko sinergia produktibo iraunkorrak sortzera.

Deialdi honek bere egiten ditu 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategiaren 3. sektore estrategikoan proposatutako orientabideak (www.euskadi.eus). Horren arabera, laguntza eta orientazio pertsonalizatuak dira enplegu-politika aktiboen funtsezko elementuak, pertsonen enplegagarritasuna hobetzen eta lan-merkatuan sartzea errazten baitute.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak hala proposatuta, organismo autonomo honen Administrazio Kontseiluak, 2021eko abenduaren 21eko bileran, enplegurako eta prestakuntzarako proiektuak garatzeko eta ekimenaren barruan lane-ratzen laguntzeko laguntzen deialdia onetsi du «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa. Kolektibo kalteberak» izeneko ekimenaren barruan eta Europar Batasunaren

NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

1.– Deialdi honen xedea da «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa. Kolektibo kalteberak» izeneko programako dirulaguntzak ematea, Europar Batasunaren Next GenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.

2.– Dirulaguntzak emango dira 45 urtetik gorako langabeei eta egoera ahulean edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen arreta pertsonalizatua emateko. Arreta hori hainbat mota-tako ekintzak batzen dituzten banakako ibilbideak garatuz egingo da, hala nola lan-orientazioa eta aholkularitza, prestakuntza eta kompetentzia profesionalak eskuratzea, laneratzea eta enplegua sortzea lanaldi partzialeko aldi baterako lan-kontratuen bidez. Horietan guztietan, gainera, aldi berean indartuko dira benetako berdintasuna eta enplegua lortzeko diskriminaziorik eza.

3.– Laguntza hauek ez dira estatu-laguntza bat Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 107. eta 108. artikuluetan ezarritakoaren arabera, laguntzak emateak ez baitu lehia faltsutzen, ez eta lehia faltsutzeko mehatxurik ekartzen ere, zenbait enpresa edo ekoizpenen alde eginez, dirulaguntzen entitate onuradunak erkidegoko eta tokiko sektore publiko instituzionaleko administrazio publikoak eta organismoak eta entitateak baitira.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 18.879.757 eurokoa da guztira, honela banatuta:

a) 4.883.358 euro, 5.3 b) artikuluan aurreikusitako gastua erantzuteko, parte-hartzaile bakoitzaren banakako ibilbideko prestakuntza-, orientazio- eta laguntza-jarduketengatik. Jarduera horiek 2022ko ekitaldiko ordainketa-kredituari dagozkio eta Europako Batasunak (Next GenerationEU) finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren kargura finantzatua, 2021eko otsaileko eta 2012ko Kontseiluaren (EB) Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatua.

b) 13.996.399 euro, parte-hartzaileen lan-kontratuak finantzatzeko, bai eta 5.3 b) artikuluan aurreikusitako gastua finantzatzeko ere, baldin eta aurreko paragrafoan aipatutako Europako funtsekin finantzatutako kredituarekin iristen ez bada. Horietatik 7.700.000 euro 2022. ekitaldiko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 6.296.399 euro, berriz, EAEko Aurrekontu Orokorren 2023. ekitaldiko konpromiso-kredituari.

2.– Laguntzen bolumen osoak ez du gainditu behar zenbateko hori edo, indarreko legeriaren arabera 2022an xede bererako funts berriak transferitzen badira eta funts horiek ordainketa-kreditu berriak sortzen badituzte, gertaera hori argitaratu beharko litzateke, Laneratzea Aktibatze zuzendariaren ebazpen baten bidez.

Halaber, 2023an funts berriak transferitzen badira xede bererako, gehitu ahal izango dira deialdi honen babesean ematekoak diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak; horrez gain, epe berri bat ezarriko da eskabideak aurkezteko eta erabakia argitaratu egingo da. Kreditu berriekin, 2022an epe barruan eskatutako eta ekitaldi horretako aurrekontu-kredituarekin eman ezin izan diren dirulaguntzak eman ahal izango dira.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren gastu-espedienteen aurretiko izapidetzea araupetzen duen Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren

2007ko apirilaren 26ko Aginduak 5.3 artikuluan jasotako ondorioetarako, deialdi honetan iragarritako dirulaguntzen ebazpenak emateko, kreditu egokiak eta behar bestekoak egon behar dira Euskal Autonomia Erkidegoaren 2022ko eta 2023ko aurrekontu orokorretan.

3. artikulua.– Dirulaguntzaren onuradunak.

1.– Deialdi horren esparruan, honako entitate hauek izan ahalko dira laguntzen onuradunak, horretarako eskaera egin ondoren:

– Euskal Autonomia Erkidegoko foru-aldundiak, mankomunitateak, kuadrillak eta udalerrriak, bai eta aurrekoen mendeko edo haiei lotutako organismoak eta gainerako entitateak ere, autonomia- eta toki-erakundeen sektore publikoa osatzen dutenak.

– EAEko tokiko edo eskualdeko garapenerako agentziak eta horiekin lotutako elkarteak.

2.– Entitate onuradunek eskakizun hauek bete beharko dituzte:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan behar dituzte.

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla, dirulaguntza eman eta hura ordaindu baino lehen. Hala ere, eskatzaileak berariaz aurka egin diezaioke egiaztatze horri, eta, halakorik egiten baldin badu, baldintza hori betetzen duela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

b) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea.

c) Ez dute izan behar zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zehapenik, ez eta horretarako desgainkuntza dakarren legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, edo Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

d) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta zehazki 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ez badu egiaztatzen 2. apartatuan xedatutako eskakizunen bat, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez frogatu beharko da; adierazpen hori eskabide-orrian jasota dago.

3.– Entitate onuradunak «ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm–DNSH» printzipioa) eta etiketatze klimatiko eta digitala erabat betetzen dituztela bermatu beharko dute, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planean, Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren 2021eko uztailaren 13ko exekuzio-erabakian (Council Implementing Decision-CID) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, baita hura garatzeko araudian ezarritakoarekin bat ere. Proiektuak diseinatu eta gauzatzeko fase guztietan bete beharko dira, modu indibidualean jarduketa bakoitzerako.

Ondorio horietarako, dirulaguntza-eskabidearekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute I. eranskineko erudian. Helbide honetan eskuratu daiteke: <https://www.euskadi.eus/servicios/1210501>

4.– Halaber, entitate onuradunek konpromisoa hartu beharko dute behar diren eskubideak eta sarbideak onartzeko, Batzordeak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Europako

Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta estatuko agintari eskudunek dagozkien kontrol-eskumenak betetzeko aukera dutela bermatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren («Finantza Erregelamendua») 129.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

Konpromiso hori dirulaguntza-eskabidearekin batera aurkeztu beharko dute, II. eranskineko ereduan. Helbide honetan eskuratu daiteke: <https://www.euskadi.eus/servicios/1210501>

5.– Entitate onuradunek proiektu bakoitza bermearekin garatzeko behar diren baliabide teknikoak eta giza baliabideak egiaztatu beharko dituzte.

Informazio hori egiaztatzeko, entitatearen legezko ordezkariak erantzukizunpeko adierazpen bat egingo du (eskabide honetara sartuko da). Edonola ere, entitate eskatzaileak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren esku izan beharko ditu adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla erakusten duten dokumentuak.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduketak.

1.– Deialdi honetan arautzen diren dirulaguntzen xedea da «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa. Kolektibo kalteberak» izeneko programan parte hartzen duten pertsonen gauzatzen dituzten 1. artikuluan azaltzen diren banakako ibilbideak finantzatzea.

Programaren pertsona onuradunak 3. artikuluan zehazten diren entitateek (horien mendeko entitateek barne) kontratatuko dituzte zuzenean; bestela, zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzen eta laneratzen diharduten irabazi-asmorik gabeko entitateek kontratatuko dituzte, betiere EAEko hirugarren sektore sozialean sartuta badaude (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean arautua), eta haiekin proiektua gauzatzea hitzartzen bada edota proiektua kontratu bidez haiei esleitzen bazaie.

Entitate onuradunak artikuluko honetako d) letran aurreikusitako ekintzak azpikontratu ahal izango ditu, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 29. artikuluan eta lege hori garatzen duen erregelamenduaren 68. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2.– Diruz lagunduko diren proiektuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

Hasieran 8 eta 12 pertsona bitarteko taldeak eratuko dira.

6 hilabeteko iraupena izango dute.

a) Lan-kontratazioa parte-hartzaile bakoitzaren banakako ibilbidearen hasieran egingo da, honako baldintza hauekin:

- Egindako kontratuek ezin izango dute inola ere ekarri enplegua eskaintzen duen entitatearen ohiko jarduerak estaltzea edo ohiko zereginetan diharduten langileak ordeztzea.

- Kontratuen iraupena 6 hilabetekoa izango da, lanaldi partzialean eta lanaldiaren % 75ean.

- Lanpostuan garatu beharreko eginkizunek eta edukiek onura publikoko edo interes orokorreko eta sozialeko jarduerekin lotuta egon behar dute batez ere, horiek gauzatzen diren inguruneko beharrei erantzun behar diete, eta honako jardun-eremu hauetakoren batean garatu ahal izango dira:

- Etxebizitza eta landa-ingurunearen hobekuntza eta birgaitzea egoera ahulenean edo gutxi garatuta dauden udalerrri edo auzoetan.

- Hirugarren eta laugarren adineko pertsonen laguntzea eta arreta ematea (silver economy).
- Egoera ahulean dauden taldeak, desgaitasun fisiko edo psikikoa duten mendeko pertsonak edo gaixotasun kronikoa dutenak zaintzea eta laguntzea.
- Kultura, hezkuntza eta osasuna sustatzea.
- Ondare artistiko eta historikoa bultzatzea eta berreskuratzea.
- Baliabideak birziklatzea eta berrerabiltzea.
- Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak.
- Espazio publikoetan mantentze-lanak egitea.
- Turismoarekin, aisialdiarekin eta kirolarekin lotutako jarduerak.
- Naturaren kontserbazioa: zuhaitz-masak, animalia-espezieak, ibaien eta kostaldeen garbiketa.
- Eten digitala ezabatzea: konpetentzia digital gutxiko pertsonen laguntzea bide elektronikoan eginen administrazio publikoekiko zereginak, erosketak elektronikoak, banku-eragiketak, etab.
- Enpresa emakidadunak lanak amaitu dituen harrobiak berreskuratzea.
- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko sareak instalatzea eta mantentzea.
- Eraikinen energia-araudi berria birgaitzea eta horretara egokitzea.
- Mugikortasun jasangarria.
- Jarduera soziokulturalak eta garapen komunitariokoak, lehentasuna emanez belaunaldien arteko komunikazio-kanalak ezar daitezkeenei.
- Erabilera publikoko edo interes orokor eta sozialeko beste edozein jardura, lanpostuan ikas-kuntza formala eta praktika profesionala bateragarri egitea ahalbidetzen duena.

b) Kontratuak irauten duen bitartean eta lan-jardueratik kanpo, honako hauek egingo dira:

Oinarrizko konpetentzietan zeharkako prestakuntza presentziala emateko talde-ekintzak, proiektuan jasotako lan-jardura hobeto garatzeko. Gutxienez 80 ordu eta gehienez 200 ordu.

Lan-orientazioko ekintza pertsonalizatuak, proiektuak irauten duen bitartean laguntza-prozesuak errazteko. Ekintzetan honako hauek sar daitezke: konpetentzien balantzea, lan-merkatuari buruzko informazioa, irteera profesionalak, helburuen plangintza eta lana bilatzeko trebetasunak. Gutxienez 10 ordu eta gehienez 15.

3.– Proiektuak gehienez ere hiru hilabeteko epean hasi beharko dira, dirulaguntza eman dela jakinarazten denetik aurrera, eta 2023ko irailaren 30a baino lehen amaitu beharko dira.

5. artikulua.– Laguntzaren zenbatekoa eta diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Prestakuntza-, orientazio- eta kontratazio-prozesu osoa amaitzen duen pertsona bakoitzak 15.375 euro jasoko ditu.

2.– Dirulaguntzaren zenbatekoa osatzeko, programan parte hartzen duen pertsona bakoitzeko kostu unitarioa hartu da kontuan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kostu unitarioak kalkulatzeko egindako txosten teknikoaren arabera.

3.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak honako hauek dira:

a) 9.375 euro, parte hartzen duen pertsona bakoitzaren lan-kontratu bakoitzeko.

Dirulaguntza horien bidez ordainduko da hainbat gastu, tartean, kontratatutako pertsonen soldata-kostuak eta gizarte-segurantzakoak, kontratu-amaierako kalte-ordainak eta gizarte-segurantzako kuota barne direla (entitate kontratatzailearen kargura).

Nolanahi ere, dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da izan kontzeptu horrengatik gastuaren benetako kostua baino handiagoa, eta justifikazioa egiten den unean egiaztatu beharko da, 12.1 b) artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

b) 6.000 euro, ibilbidean prestatzeko, orientatzeko eta laguntzeko jardueretarako, honako gastu hauek estaliko dituen:

– Deialdihonen 4.2.d) artikuluan adierazitakoaren arabera prestakuntza- eta orientazio-ekintzak.

– Prestakuntza emateko eta lan-eginkizunak gainbegiratzeko lanak egiten dituzten langileen soldata-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak, 6 hilabeteri dagozkienak, parte-hartzaileen taldeari proiektua garatzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta gaitasunak ematea barne.

– Pertsonen orientazioa eta laguntza ematen dieten langileen soldata-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak, 6 hilabeteri dagozkionak, bai eta proiektuaren koordinazio- eta jarraipen-gastuak ere.

– Jarduketa horiek gauzatzearekin zuzenean lotutako beste kostu batzuk, jarduera horietan emandako denboraren proportzioan: aseguruak, materiala, lokalaren errentamendua, parte-hartzaileentzako kontziliazio-neurriak, etab.

4.– Likidazioak ez du inola ere gaindituko hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa.

Pertsona bakoitzeko dirulaguntzaren likidazioak sei hilabeteko lan-kontratazio jarraitua eskatzen du, bai eta 4.2.d artikuluan aurreikusitako orientazioko eta prestakuntzako gutxieneko orduak betetzea ere.

Kontratua aldeztu aurretik iraungitzen bada, dirulaguntzaren likidazioa modu proportzionalan egingo da, benetan lan egindako aldia kontuan hartuta eta 11. artikuluan ezarritakoa betez. Kasu horretan, ez da eskatuko pertsona bakoitzak 4.2.d artikuluan aurreikusitako gutxieneko prestakuntza- eta orientazio-orduak proportzionalki betetzea.

Era berean, ez da ez-betetzat joko 4.1.a artikuluan aipatutako proiektu bakoitzeko gutxieneko pertsona-kopurua, 11. artikuluan ezarritako irizpideei jarraiki ordainketa proportzionala bidezkoa den kasuetan.

6. artikulua.– Proiektuen hartzaile diren pertsonen betekizunak.

1.– Deialdi honen babesean diruz lagundutako banakako ibilbideetan, langabeak eta Lanbiden enplegu-eskatzailerik gisa izena emanda daudenak izan daitezke proiektuaren hartzaileak, baldin eta EAEn bizi badira eta bi kolektibo hauetako batekoak badira:

a) 45 urtetik gorako pertsonak.

b) Kalteberatasun-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak.

Kalteberatasun-egoeran edo baztertzeko arriskuan daudela ulertuko da, besteak beste, honako hauek:

– DSBEa eta/edo BGE jasotzen duten titularrak edo onuradunak.

– Luzaroko langabeak: Luzaroko langabetzat joko dira hautagaitza bidali aurretiko 540 egunetan, gutxienez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa inskribatuta egon eta langabezian 360 egun eman dituztenak.

– Kualifikazio gutxiko langabeak: enplegu-eskaeran bitartekaritzarako prestakuntza-maila 23. mailatik gorakoa (DBHn edo horren baliokidean gradua) ez duten pertsonak.

2.– Hartzaileak izan daitezke, baldin eta ez badira hautatu Euskal Autonomia Erkidegoan iraupen luzeko langabeak diren eta BGE eta/edo DSBE jasotzen duten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko laguntza integraleko ibilbideen proiektuen esparruan.

7. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Dirulaguntza-eskabideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Publikoaren egoitza elektronikoen bidez aurkeztu behar dira: <https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa/> eta hara iristeko esteka bat egongo da Lanbideren web-orrian.

Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa, izapidetzeko jarraibideak adierazita, eta eskabide-inprimakia helbide honetan eskura daiteke: <https://www.euskadi.eus/servicios/1210501>

Eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira:

<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta>

Halaber, izapidetzea ordezkari baten bidez egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkaritza hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ahalordeen erregistro elektronikoa inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarik>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

2.– Dirulaguntzaren eskabideak laguntzaren xede den proiektuaren xehetasun hauek jaso beharko ditu, gehienez ere 15 orrialdetan:

1) Proiektuaren entitate sustatzailea.

2) Proiektuaren izena.

3) Dirulaguntza emateko baloratu daitezkeen alderdiei buruzko dokumentazio eta informazio xehatua, deialdi honetako 8. artikuluko 6. apartatuan jasotzen direnei buruzkoak. Aurkezten ez dena ez da puntuatuko.

4) Proiektua koordinatzeko harremanetarako pertsona(k) eta bere(n) datuak.

5) Proiektuak hartzen dituen parte-hartzaileen kopurua: gutxienez: 8 - gehienez: 12.

6) Jarduteko lurralde-eremua (udalerria, eskualdea, lurralde historikoa edo Euskal Autonomia Erkidegoa).

7) Prestakuntza-ibilbidearen ordu-kopurua: gutxienez 80 ordu eta gehienez 200 ordu.

8) Prestakuntza-ibilbidea ematen duen entitatea.

9) Lan-orientazioko ekintzak ematen dituen entitatea.

10) Proiektuan parte hartzen dutenen entitate kontratatzailea.

11) Erakundearen legezko ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena, dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituela eta proiektu bakoitza bermez garatzeko beharrezkoak diren baliabide teknikoak eta giza baliabideak dituela adierazten duena.

12) Onura publikoko jarduera-eremua; deialdi honen 4.1 artikuluan aipatutakoetako bat.

13) «Kalte esanguratsurik ez eragitearen» printzipioa («do no significant harm – DNSH» printzipioa) betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena (I. eranskinean dago eredua), Europako Parlamentuak eta Batzordeak 2021eko otsailaren 12an onetsi zuen 2021/241 (EE) Erregelamenduaren 2. artikuluko 6. apartatuan ezarritako moduan. 3.3 artikuluan aipatzen da.

14) Erantzukizunpeko adierazpena (II. eranskinean dago eredua) non konpromisoa hartzen duen behar diren eskubideak eta sarbideak onartuko dituela Batzordeak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Europako Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta Estatuko agintari eskudunek dagozkien kontrol-eskumenak betetzeko aukera dutela bermatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22. artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren («Finantza Erregelamendua») 129.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira. 3.4 artikuluan aipatzen da.

15) Datuen lagapenari eta tratamenduari buruzko adierazpena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22. artikuluan 2.d) eta 3. apartatuetan xedatutakoari dagokionez. III. eranskineko ereduak aurkeztuko da.

16) Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planean ezarritako zeharkako printzipioak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, IV. ereduak.

2. apartatu honetako 13., 14., 15. eta 16. zenbakietan aipatzen diren ereduak <https://www.euskadi.eus/servicios/12105> helbidean eskuratu ahal dira.

3.– Eskabideak ez baditu baldintza guztiak betetzen, interesdunari jakinaraziko zaio 10 egun balioduneko epea duela, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunean zenbatzen hasita, izandako hutsune edo akatsa konpontzeko, edo aurkeztu beharreko dokumentuak aurkezteko. Hori egingo ez balu, eskabideari uko egiten diola ulertuko da, horretarako beharrezkoa den ebazpena eman eta gero.

4.– Eskabideak aurkezteko epea 2022ko urtarrilaren 24an hasi eta 2022ko uztailaren 29an amaituko da.

Eskabideak aurkezteko beste epe bat zabaldutik ahal izango da 2023an funts berriak transferitzen badira Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana dela-eta, xede bererako badira eta haien bidez laguntza hauek finantzatzera bideratutako kreditua handitzen bada, 2.1 artikuluan hirugarren paragrafoan ezarritakoarekin bat. Halakorik gertatuz gero, publiko egingo da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, zeina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko baita.

8. artikulua.– Prozedura eta ebazpena Eskabideak ebaluatzeko irizpideak eta adjudikazioa.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari Laneratzea Aktibatzeko zuzendaria da prozedura bideratu eta ebazteko organo eskuduna.

2.– Prestakuntza-, orientazio- eta enplegu-ekintzak egiteko dirulaguntza emateko prozedura ondoz ondoko norgehiagoka izango da.

2.1.– Eskabideak aurkezteko hurrenkeraren arabera aztertuko dira, eta hurrenkera berean emango zaizkie dirulaguntzak deialdian aurreikusitako betekizunak eta baldintzak betetzen dituzten guztiei, harik eta finantzaketarako funtsak agortu arte.

Hasierako aurrekontu-zuzkidura eta balizko handitzea amaitu ondoren, geratzen diren eskabideei ezezkoa emango zaie, eta EHAA-n argitaratuta emango da horren berri, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari Laneratzea Aktibatzeke zuzendariaren ebazpen bidez.

2.2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari Laneratzea Aktibatzeke zuzendariak laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena emango du, eta banan-banan jakinaraziko du, bitarteko telematikoen bidez.

Dirulaguntzaren emate-ebazpenean datu hauek adieraziko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordainketa-modua eta justifikazioa, hala badagokio.

Dirulaguntza ukatzen duen ebazpena ematen bada, arrazoiak azaldu beharko dira, hau da, berariaz adierazi beharko da eskaera zergatik ukatu den.

2.3.– Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea 2 hilabetekoa izango da, eskabidea aurkeztu den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igarotakoan, ez bada ebazpenik eman espresuki, ulertuko da dirulaguntzaren eskabidea ezetsi egin dela.

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari Laneratzea Aktibatzeke zuzendariaren ebazpenek ez dute administrazio-bidea amaitzen, eta haien aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatuta.

4.– Publikotasunaren printzipioa betetzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari Laneratzea Aktibatzeke zuzendariaren ebazpenez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian emango da jakitera zer enpresak jaso duten dirulaguntzen deialdi honen babesean eta zenbateko laguntza jaso duten.

5.– Onuradunei dirulaguntzak eman eta, hala dagokionean, ordaintzea baldintzapean dago; hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetze-fasean dagoen edozein itzulketa- edo zigor-prozedura amaitzearen baldintzapean.

6.– Aurkeztutako proiektuak baloratzeko irizpideak.

6.1.– Prestakuntza, orientazio eta enplegura bideratutako proiektuak garatzeko dirulaguntzak amaierako puntuazio baten arabera emango dira. Puntuazio hori proiektu-eskabide bakoitzerako zehazten diren helburuen balioespenean eskuratutako puntuaren batuketaren emaitza izango da, jarraian zehazten diren ebaluazio-irizpideak kontuan hartuta:

Proiektuaren kalitatearen eta koherentziaren berariazko balioespena, eskaeran oinarritzen dena. 60 puntu, gehienez.

Baloratuko diren kontzeptuak	Puntuak
Eskatutako lurralde-eremuan proiektuak komunitatearentzat eta onura publikoarentzat interesa duen diagnostikoa aurkeztu du.	5
Eskatutako lurralde-eremuan proiektuak lanbideen edo lan-jardunen gaur egungo lan-merkatuaren egoeraren azterketa aurkeztu du.	5
Proiektuaren publizitate-estrategia bat aurkeztu du.	2
Enplegu-eskaintzaren kudeaketan bidalitako pertsonen eta proiektuan parte hartzen duten hautagaien azken hautaketa-prozesuaren diseinua aurkeztu du.	3
Prestakuntza-ibilbidearen diseinua aurkeztu du: Proiektuaren xede den kolektiboaren ezaugarrietan oinarritutako prestakuntza-ibilbidearen diseinua sartu du: helburu orokorrak, helburu espezifikoak, baliabideak eta kronograma: 5 puntu. Aplikatu den metodologia didaktikoaren deskribapena egin du. 4 puntu. Aldez aurretik planteatutako lorpenak eta helburuak ebaluatzeko plana garatu du. 4 puntu. Lan-ingurunean gizarte-trebetasunak eta zeharkako trebetasunak areagotzeko edukiak sartu ditu: 2 puntu.	15
Lan-orientazioari lotutako estrategia bat aurkeztu du: Parte-hartzaileen lan-orientaziorako metodologia bat eman du. 5 puntu. Erabili beharreko orientazio-ekintzari laguntzeko tresnen zerrenda bat sartu da (ikus-entzunezkoak, Interneteko estekak, argitalpenak, eskuliburuak, etab.). 5 puntu.	10
Enpleguari lotutako estrategia zehatza aurkeztu du. Lanpostuaren azterketa eta deskribapena egin ditu. 4 puntu. Lanpostuaren zeregin nagusiak zehaztu ditu. 4 puntu. Lan-jarduera gainbegiratzeko eta «pertsona/lanpostua» egokitzeko plan bat diseinatu du. 4 puntu. Lan-arriskuen ebaluaziorako plana sartu du. 3 puntu.	15
Proiektuan parte hartzen duten pertsonen laneratzeko laguntzeko eta enplegurako laguntzeko beste ekintza batzuk: Lan-merkatuaren azterketa bat aurkeztu du, eta parte-hartzaileek hara jo ahal izango dute proiektua garatu ondoren: 5 puntu.	5

6.2.– Entitate eskatzaileak 45 puntu lortu beharko ditu gutxienez artikuluko honetako guztizko puntuazioan, dirulaguntza eskuratu ahal izateko. Puntuazio hori lortzen ez duten proiektuen eskaerak ezetsi egingo dira.

9. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzeko modua.

1.– Onartutako dirulaguntza bi zatitan ordainduko da, honela:

a) Proiekturako dirulaguntzaren % 66,65 (lehenengo ordainketa), laguntza emateko ebazpena jakinarazi ondoren.

b) Bigarren ordainketa, emandako dirulaguntzaren gainerako zenbatekoari dagokiona, diruz lagundutako jarduerak amaitu eta justifikatu ondoren.

2.– Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izan ditzan, entitate onuradunak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan inskribatuta behar du.

Erakundea erregistratuta ez badago edo Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan dauden banku-datuak aldatu nahi baditu, helbide honetan adierazitako urratsak egin beharko ditu: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

10. artikulua.– Partaideen hautaketa.

1.– Entitate onuradunek eskatuko dituzte pertsonak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulego batean enplegu-eskaintza bat aurkeztuz. Pertsona horiek arestian adierazitako kolektiboetan sartuta egon beharko dute, eta dagokien lan-eskaintzara eta lan-kontratuaren hasierara aurkezteko unean izena emanda eta langabezia egon beharko dute.

Eskaintza-eskaeran, programan parte har dezaketen hautagaien bizileku geografikoaren eremua zehaztu beharko dute, betiere EAEn eremuaren barruan. Lanbidek ez du hartuko espezializazio hautagaitzak kudeatzeko nahitaezko baldintza gisa.

2.– Hautagaitzak sartzeko, eskaintza kudeatzen duen Lanbideren bulegoak argitaratu egin beharko du, eta gutxienez zazpi egun naturaleko epean utzi beharko du argitaratuta Lanbideren webgunean.

3.– Ez dira deialdi honetako ekintza eta zerbitzuen hartzailetzat hartuko Estatuko lan-merkatu-rako sarbiderik ez duten pertsonak.

4.– Entitate onuradunek hautatuko dituzte behin betiko hautagaiak. Erakundeak Lanbidek egin-dako inkestari erantzun beharko dio, eskaintzaren kudeaketari buruzkoa, jaso diren hautagaitza guztiak bildu ostean.

5.– Banakako ibilbideari lotuta egingo diren kontratuak 3 hilabeteko epearen barruan hasi beharko dira, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, ezinbesteko arrazoiak edo behar bezala justifikatutako arrazoiak daudenean salbu. Kasu horretan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak baimendu beharko du atzerapena.

Ezarritako epearen amaieran benetan kontratatutako pertsonen kopurua eskabidean eta laguntza emateko ebazpenean ezarritakoa baino txikiagoa bada, entitate onuradunak bere borondatez itzuliko du egin ez diren kontratazioei dagokien dirulaguntzaren zenbatekoa, eta uko egitearen berri emango dio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, zeinak dagokion ordainketa-gutuna emango baitio entitateari, itzuli beharrekoa ordain dezan.

6.– Kontratuak Contrat@ aplikazioaren bidez jakinarazi beharko dira, kontratua hasi eta hama-bost egun balioduneko epearen barruan, eta identifikazio hau izan beharko dute, aplikazioan ezarritakoaren arabera: «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa. Kolektibo kalteberak».

11. artikulua.– Kontratuak behar baino lehenago azkentzea.

Ibilbide pertsonalizatuaren barruan diruz lagundutako lan-kontratuak dirulaguntzaren epealdia amaitu aurretik azkentzen badira, horren berri eman beharko zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, 7 eguneko epean, kontratua azkentzen denetik hasita, eta azkendutako kontratuaren kontura jasotako dirulaguntza itzuli beharko da, osorik. Halaber, dagokion prozedura izapidetuko da, 17. eta 18. artikuluek arautzen dituzten jarraibideak beteta. Nolanahi ere, kontratua azkentzeko arrazoiak probaldia ez gaituzte, langileak lana bere borondatez uztea, bidezkotzat jotako kaleratzea edo kontratatutako pertsonaren heriotza edo baliaezintasuna izan baldin bada, lan-kontratuak iraun duenaren proportzioan murriztuko da dirulaguntzaren zenbatekoa.

12. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa eta epea.

1.– Kontratazioak amaitu eta bi hilabeteko epearen barruan, dirulaguntzen entitate onuradunak diruz lagundutako jarduketaren eta izandako gastuen justifikazioa aurkeztu beharko du, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamenduaren 69. artikuluan eta 76. artikulutik 79. artikulura ezarritako moduluen erregimenaren bidez.

Justifikazio horretan, entitate onuradunak aurkeztu beharreko dokumentazio hau jasoko da:

a) Egindako jardueren eta lortutako emaitzen jarduketa-memoria. Honako hauek jaso behar dira, gutxienez, memorian:

– Komunitatearentzat interesgarria izan daitekeen jardueraren deskribapena, hasieran aurreikusitako helburuen ebaluazioa eta betetze-maila, eta parte hartzen duten langileen gogobetetze-inkesta.

- Parte-hartzaileen eta egindako jardueren zerrenda, Lanbidek emandako ereduaren arabera.
- Laburpen-fitxa, parte-hartzaile bakoitzak sinatua, prestakuntza-zerbitzuak jaso izana justifikatzen duena eta emandako ordu-kopurua jasotzen duena.
- Laburpen-fitxa, parte-hartzaile bakoitzak sinatua, orientazio-zerbitzuak jaso izanaren justifikatzen duena eta zerbitzu hori garatzeko ordu-kopurua jasotzen duena.
- Proiektuak irauten duen 6 hilabeteetan begirale/arduradun lanak egin dituzten pertsonen zerrenda (5.3 b artikulua).

b) Parte-hartzaileen lan-kontratuei dagokienez, entitate onuraduneko idazkariak/kontu-hartzaileak egindako gastuaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, toki-erakundeen edo sektore publikoko erakundeen kasuan. Gainerako entitateek, berriz, egindako gastua eta kontzeptu horrengatik egindako ordainketak egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru-sarreraren edo dirulaguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Azpikontratututako jardueren xehetasuna.

e) «Kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm–DNSH» printzipioa) betetzen dela egiaztatzeko aurrez ikusitako mekanismoak eta printzipio horren ezarpena bermatzeko neurri zuzentzaileak.

2.– Entitate onuradunek frogagiriak eta finantzaketari dagokion gainerako dokumentazioa 5 urtez gorde beharko dituzte, eragiketa egiten denetik aurrera, edo, bestela, dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa bada, hiru urtez. Formatu elektronikoa gorde beharko dira, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (Finantza Erregelamendua) 132. artikuluan ezarritakoa bete beharko dute gordetzeko.

3.– Dokumentazioa ez bada aurkezten ezarritako epean, edo aurkezturiko dokumentaziotik ondorioztatzen bada justifikatutako kopurua aurrerakin gisa jasotakoa baino txikiagoa dela, itzul-keta-prozedura abiaraziko da, 18. artikuluan arautzen den prozedurari jarraituz.

13. artikulua.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 14. eta 46. artikuluetan eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan orokorrean ezarritakoak eta deialdian ezarritako bereziak, eta, bereziki, honako hauek:

- a) Enplegu-eskaintzak kudeatzeko eskabideak aurkeztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan.
- b) Kontratuen hasieraren berri ematea kontratua hasi eta hamabost egun balioduneko epearen barruan, kontratatutako langabeen kopurua zehaztuta.
- c) Frogatu behar dute laguntza emateko eta hura baliatzeko bide eman duten betebeharrak eta baldintzak betetzen dituztela eta jarduera gauzatzen dutela.
- d) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea kontratuen azkentzeak, 11. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- e) Xede bererako beste administrazio edo ente publiko nahiz pribatu baten (Estatuko edo nazioarteko baten) dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat jasoz gero, Lanbide-Eus-

kal Enplegu Zerbitzuari horren berri ematea, kostu beraren gainean finantzaketa bikoitzik ez gertatzeko.

f) Dirulaguntza ematerakoan kontuan hartutako egoeraren bat, objektiboa edo subjektiboa, aldatu bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta haren organismo autonomoek, zuzenbide pribatuko ente publikoek eta sozietate publikoek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi, eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzultze- edo zehapen-prozedura jakinaraztea.

h) Honako hauen egiaztatze-jarduketei baiezkota ematea: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, Lan eta Enplegu Saila, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Europako Erkidegoetako Batzordea eta Kontuen Auzitegia, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoa (OLAF), Auditoriako Bulego Nazionala, eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltza.

Halaber, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planerako ezartzen diren jarraipen, kontrol eta ebaluazioa egitea, baita, informazioaren eta publikotasunaren arloan, kontrol, egiaztapen, jarraipen eta ebaluazioaren arloan, barne-araudiak eta Europar Batasunak Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarako ezartzen dituzten betebeharrak betetzea, nahitaez betetzekoak direnean.

i) «Kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm–DNSH» printzipioa) eta etiketatze klimatiko eta digitala erabat betetzen direla bermatzea, eta betetzen direla egiaztatzeko mekanismoak eta mekanismo horien ezarpena bermatzeko neurri zuzentzaileak aurreikustea.

j) Jasotako dirulaguntzaren aplikazioan iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak saihesteko neurriak hartzea.

k) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko betebeharrak:

– Emakumeen eta gizonen arteko tratua- edo aukera-berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioa aplikatzea bermatuko da probetan edo elkarriketetan eta pertsonak aukeratzeko prozesuetan.

– Zer hautagai aukeratu erabaki behar denean, gutxienez emakume batek parte hartu behar du erabakia hartzeko prozesuan. Ezinezkoa bada, justifikatu egin behar da.

– Dokumentazio, publizitate, irudi eta material guztietan sexismorik gabeko hizkera erabili behar da, emakumeen kontrako bereizkeria edo estereotipo sexistak bultzatzen dituzten irudiak saihestu behar dira, eta berdintasunaren aldeko irudiak sustatu behar dira, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta rolen eta genero-identitatearen pluraltasuna sustatzen dutenak.

14. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan araututako dirulaguntzak bateragarriak dira kontzeptu eta helburu bererako beste administrazio edo entitate publiko edo pribatu batzuek emandako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin. Edonola ere, argi identifikatuta geratu beharko da gastuen trazabilitatea, eta laguntzen eta dirulaguntzen batura ezin izango da izan diruz lagundutako gastuen kostua baino handiagoa.

Hala ere, deialdi honen babesean emandako dirulaguntzak bateraezinak dira Europar Batasunaren funtsekin finantzaturako beste laguntza batzuekin, gastu berberak finantzatzeko badira.

15. artikulua.– Identifikazioa eta publizitatea.

Deialdi honetan arautzen diren laguntzak finantzatzen dituzte Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua eta Europar Batasuneko NextGeneration EU funtsak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak ezarri zuen Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez. Horrenbestez, deialdi honen babesean diruz lagundutako jarduerak eta horiei buruz eta «Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa. Kolektibo kalteberak» izeneko programari buruz egiten den publizitate guztia behar bezala identifikatuta egon beharko da, Estatuko araudiak eta Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismo-rako araudiak informazio-, komunikazio- eta publizitate-gaietan zehazten dituzten betebeharrekin bat etorritik, bai eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak horretarako ematen dituen jarraibideekin bat etorritik ere.

Ildo horretan, dirulaguntza hauek jasotzen dituzten entitate onuradunek finantzaketa horren jatorriaren berri eman beharko dute jarduketan publizitatean, eta ikusteko moduan egiten dela bermatu beharko dute. Hala dagokionean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren logoaren identifikazio grafikoaz gainera, Europar Batasunaren ikurra eta finantzaketa-adierazpen egoki bat txertatuko dute, non hau adierazi behar baita: «Europar Batasunak – Next Generation EUk finantzatuta». Helbide honetan eskuratu ahal dira elementu horiek: <https://planderecuperacion.gob.es/identidad-visual> Bereziki agerikoa izan beharko da ekintzak eta emaitzak sustatzen direnean, eta informazio koherentea eta eraginkorra eman beharko da, hartzaille ugarirentzako, komunikabideak eta herritarrak barne direla.

16. artikulua.– Dirulaguntza aldatzea.

1.– Dirulaguntzak emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketarik gertatuz gero, emandako dirulaguntza aldatu ahal izango da, betiere deialdi honetan dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunei eusten bazaie, eta horiek emateko ezarritako irizpideak eta mugak betetzen badira.

Emakida-ebazpena eman ondoren, onuradunak dirulaguntza aldatzeko eskatu ahal izango du. Aldaketa hori eskatzeko, ebazpena eman ondoren eta diruz lagundutako jarduera egiteko epearen barruan gertatutako inguruabarrak izango dira oinarri, eta entitate onuradun bakoitzarentzat eskatu beharko da. Eskaera inguruabarra gertatu eta berehala formalizatu beharko da, eta, edonola ere, jarduera egiteko epe hori amaitu baino lehen. Aldaketak ezin die inola ere eragin Erkidegoko araudiak edo Estatukoak ezarritako betebeharrei, bereziki Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren 2021eko uztailaren 13ko exekuzio-erabakian (Council Implementing Decision-CID) ezarritako mugariak edo helburuak edo egiteko epea ez betetzea badakar.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari Laneratzea Aktibatze Zuzendaritzak ebazpena eman beharko du aldaketa onartzeko edo ukatzeko, eskaera egin eta bi hilabeteko epearen barruan. Epe hori igaro ondoren ebazpen espresurik jakinarazten ez bada, eskabidea ezetsizat jo ahal izango da. Ebazpen horien bidez, aldatzeko eskabidea aurkezten den unera eramanez ahal izango dituzte ondorioak. Nolanahi ere, aldaketa egiteko baimena soilik eman ahal izango da hiru garrenei kalterik eragiten ez badie.

2.– Baldintzen aldaketa horren ondorioz dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedura hasiko da.

17. artikulua.– Ez-betetzeak.

Deialdi honetako dirulaguntzen entitate onuradunek ez badituzte betetzen oro har ezarri zaizkien betebeharrak (Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikulua, eta

azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikulua), edo deialdi honetan berariaz ezarri zaizkienak, edo azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.1 artikuluan adierazitako dirulaguntza itzultzeko kasuren batean sartzen badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak ordaintzeke dagoen dirua jasotzeko eskubidea galdu dela erabakiko du, dagokion ebazpenaren bidez, eta Euskadiko Ogasun Nagusiari jasotako kopuruak eta dirulaguntza ordaindu zenetik sortutako dirulaguntzei lotuta aplikagarriak diren berandutze-interesak itzuli behar zaizkiola xedatu ere, bidezkoak diren bestelako ekintzak eragotzi gabe, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan horretarako ezarritako prozedurari jarraikiz (698/1991 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautu zen eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezarri ziren).

Zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira dagozkien lege-ondorioetarako, eta aipatutako Euskadiko Ogasun Orokorreko Printzipio Ordenatzaileen Legearen testu bateginaren 64. artikuluan aurreikusitako erantzukizun-araubidea jarraituko da.

Ez-betetze partzialen kasuan, hasieran aurrez ikusitako eperako kontratatzeko betebeharra edo ezarritako eran kontratatzekoa betetzen ez bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari Laneratzea Aktibatze Zuzendaritzak zehaztuko du entitate onuradunak itzuli beharreko kopurua, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuta, justifikatutako kostuen eta egiaztatutako jarduketan arabera, zenbatekoa osorik itzuli behar denean salbu.

18. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura.

1.– Aurreko artikuluan aipatutako ez-betetzere bat gertatzen baldin bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari Laneratzea Aktibatze Zuzendaria entitate interesdunari jakinaraziko dio itzultzeko prozedura hasi dela, eta zergatik hasi den, eta 15 eguneko epea emango dio egokitzen jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan.

2.– Alegazioak jasotakoan, edo, horrelakorik aurkeztu ez bada ere, epea igarotakoan, prozedura amaituko da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari Laneratzea Aktibatze Zuzendariaren ebazpen baten bidez. Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez 12 hilabeteko epean ebatzi beharko da.

3.– Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenak ez-betetzere bat izan dela adierazten baldin badu, bertan deklaratu da dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu dela, eta ezarriko da, hala badagokio, dagozkion zenbatekoak EAEko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko betebeharra; itzultzeko epea bi hilekoa izango da ebazpena jakinarazten denetik aurrera. Borondatezko alditzat joko da epe hori.

4.– Borondatezko epe horretan dirulaguntza itzultzen ez bada, dirulaguntza premiamendu-bidetik berreskuratzeko izapideak hasiko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketa Erregelamenduan ezarritakoaren arabera zorraren konpentsazioa aplikatu behar denean izan ezik.

19. artikulua.– Datuen babesari buruzko informazioa.

Datu pertsonalen babesaren arloan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bi xedapen hauen arabera jokatu du: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (EB 2016/679 Erregelamendua) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa. Lortutako datu pertsonalak «Enplegurako eta enplegu-prestakuntzarako dirulaguntzak» izeneko

tratamendu-jardueraren barruan egongo dira. Jarduera horren arduraduna Lanbide da, eta haren helburua da Lanbideren eskumen diren enplegu-politika aktiboekin zerikusia duten dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea, bai eta iruzurra pertsegitzea eta datuak estatistiketarako erabiltzea ere. Lortzen diren datuak beharrezkoak dira Lanbideri emandako botere publikoak gauzatzeko eta lege-betebeharrak betetzeko, eta arlo horretan eskumena duten administrazio publikoei jakinarazi ahal izango zaizkie.

Datuen titularrek eskubidea dute beren datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta tratamenduaren aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali behar dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz).

Datuen babesari buruzko informazio gehiago dago hemen: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/074300-cap2-eu.shtml>

20. artikulua.– Aplikatu beharreko araudia.

Deialdi honetan jasotzen diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkie dirulaguntzei buruzko araudi orokorra ezartzen duten arau hauek: Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen); azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, zeinak arautu baitzuen Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak.

Halaber, laguntzen programa honi hauek ere aplikatuko zaizkio: 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez onartzen baitira presazko neurriak Administrazio Publikoa Modernizatzeko eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana gauzatzeko; HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, zeinaren bidez Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen baita; TES/897/2021 Agindua, abuztuaren 19koa, zeinaren bidez Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatutako zenbait kreditu banatzen baitira lurraldean, 2021eko ekitaldi ekonomikorako, autonomia-erkidegoak kudea ditzaten; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamendua eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamendua («Finantza Erregelamendua»).

2021eko abenduaren 31, ostirala



I. ERANSKINA

(EB) 2020/852 ERREGELAMENDUAREN 17. ARTIKULUARI DAGOKIONEZ, INGURUMENEO SEI HELBURUEI «KALTE ESANGURATSURIK EZ ERAGITEKO» PRINTZIOA BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Jarduketaren identifikazioa	«Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berrien programa. Kolektibo kalteberak», Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoan.
Jarduerari dagokion STEPeko osagaia	23. osagaia: lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak
Jarduerari dagokion STEPeko osagaiaren neurria (erreforma edo inbertsioa). Hala badagokio, azpineuria adierazi behar da	C23.I4
STEPeko neurriari (erreforma edo inbertsioa) edo, hala badagokio, azpineuriari esleitutako etiketatze klimatikoa eta ingurumenekoa (VI. eranskina, 2021/241 Erregelamendua)	Etiketak: 01-Konpetentzia eta enplegu berdeetarako ekarpena (% 100) Ehuneko berdea: % 20

Izen-abizenak	
IFZ	
Bere izenean edo entitate honen ordezkari gisa	
Entitatearen IFZ	
Honako zeregin hau betez:	
Harremanetarako datuak (helbidea:; telefona:.....; e-maila:.....)	

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

Goian adierazitako jarduketa dela-eta, eskabidea aurkeztu duela proiektu honetarako:

eta proiektu horrek baldintza hauek betetzen dituela:



A. Ingurumenari dagokionez jasangarriak diren jarduera ekonomikoak sailkatzeko sistema (edo «taxonomia») baten bidez, inbertsio jasangarriak ahalbidetzeko esparru baten ezarpenari buruzko (EB) 2020/852 Erregelamenduen 17. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira, proiektuan garatutako jarduerak ez diote kalte esanguratsurik eragiten ingurumeneko helburu hauei:

1. **Klima-aldaketa arintzea.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten dio klima-aldaketa arintzeko helburuari, berotegi-efektuko gasen (BEG) isuri handiak eragiten baditu.
2. **Egokitzapena klima-aldaketara.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten dio klima-aldaketara moldatzeko helburuari, oraingo baldintza klimatikoaren eta etorkizunerako aurrez ikusitakoaren ondorio txarrak areagotzen baditu, bai jarduerari dagokionez, bai pertsonari, naturari edo aktiboei dagokienez.
3. **Baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasangarria eta babesa.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten die baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera eta babes jasangarriari, kaltea eragiten badie ur-masen –azaleko urak eta lur azpikoak– egoera onari edo potentzial ekologiko onari eta itsas uren egoera ekologiko onari.
4. **Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklatzea barne.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten dio ekonomia zirkularriari –hondakinen prebentzioa eta birziklatzea barne– kasu hauetan: eraginkortasunik eza ugari eragiten baditu materialen erabilera edo baliabide naturalen zuzeneko edo zeharkako erabilera; hondakinen sorrera, errausketa edo ezabaketa modu nabarmenean areagotzen baditu, edo hondakinen epe luzearako ezabaketak kalte esanguratsua eta epe luzeakoa eragiten badio ingurumenari.
5. **Atmosferaren, uraren edo lurzoruen kutsaduraren prebentzioa eta kontrola.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten die kutsaduraren prebentzioari eta kontrolari, nabarmen areagotzen badiu atmosferara, uretara edo lurzorura isuritako kutsatzaileen kopurua.
6. **Biodibertsitatearen eta ekosistemen babesa eta leheneratzea.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten dio biodibertsitatearen eta ekosistemen babesari eta leheneratzeari, kalte egiten badie ekosistemen baldintza onei eta erresilientziari edo kalte egiten badio habitat eta espezieen kontserbazio-egoerari, bereziki Batasunak interesekotzat jotakoaren kontserbazio-egoerari.

B. Garatutako jarduerak ez daude baztertuta planaren finantzaketatik, «kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioari buruzko gida teknikoarekin bat etorrira, hauek direla bide: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko (2021/C 58/01)32 Erregelamendua, Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren exekuzio-erabakiaren proposamena eta dagokion eranskina:

1. Petrolio gordinaren findegien eraikuntza, ikatza erabiltzen duten zentral termikoak eta petrolio edo gas naturala erauztea dakarten proiektuak, kalte egiten baitiote klima-aldaketa arintzeko helburuari.
2. Erregai fosilekin zerikusia duten jarduerak, erregai horien geroko erabilera barne, salbu eta, elektrizitatea eta/edo beroa sortzeko, gas naturala erabiltzen duten proiektuak eta garraio-azpiegiturarekin eta lotutako banaketarekin zerikusia dutenak, Europako Batzordearen Gida Teknikoaren III. eranskinean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.
3. Emisio-eskubideen salerosketa-araubidearen (RCDE) esparruko jarduerak eta aktiboak, aurreikuspenen arabera, eragingo dituzten berotegi-efektuko gasen isuriak erreferentziako parametroen azpitik egongo ez badira. Diruz lagundutako jarduerak eragindako berotegi-efektuko gasen isuriak erreferentziako parametroak baino nabarmen txikiagoak izango ez direla aurreikusten bada, inguruabar horren azalpen arrazoitua eman beharko da.
4. RCDEren zeharkako kostuen konpentsazioa.
5. Hondakinen zabortegekin eta erraustegiekin lotutako jarduerak. Salbuespen hau ez zaie ezartzen birziklagarriak ez diren hondakin arriskutsuen tratamendua baino egiten ez duten instalazioetan eta aurretiaz dauden instalazioetan egiten diren ekintzei, haien helburua bada energia-efizientzia areagotzea, ihes-gasak harrapatzea biltegiratu edo erabiltzeko, edo errausketaren errautsetako materialak berreskuratzea, betiere ekintza horiek ez badute eragiten instalazioetan hondakinen tratamendu-ahalmena areagotzea edo haien balio-bizitza luzatzea. Inguruabar horiek dokumentu bidez justifikatu beharko dira, instalazio bakoitzeko.
6. Tratamendu mekaniko-biologikorako instalazioekin lotutako jarduerak. Salbuespen hau ez zaie ezartzen birziklagarriak aurretiaz dauden tratamendu mekaniko-biologikorako instalazioetan egiten diren ekintzei, haien helburua bada instalazioen energia-efizientzia areagotzea edo hondakin bereziak birziklatzeko eragiketarako



berregokitzea (adibidez, konpostatzeko eta biohondakinen digestio anaerobiorako), betiere ekintza horiek ez badute eragiten instalazioetan hondakinen tratamendu-ahalmena areagotzea edo haien balio-bizitza luzatzea. Inguruabar horiek dokumentu bidez justifikatu beharko dira, instalazio bakoitzeko.

7. Jarduerak zeinetan hondakinen epe luzerako ezabaketak kaltea eragin baitiezaioke ingurumenari.

C. Garatutako jarduerak ez daukate zuzeneko ondorioz ingurumenean, ezta zeharkako ondorio primarioz ere haien bizi-ziklo osoan zehar. Halakotzat jotzen dira amaitu ondoren, jarduera egin eta gero, agertu ahal direnak.

Adierazpen honetan ezarritako betekizunetako bat betetzen ez bada, itzuli egin beharko dira jasotako kopuruak eta dagozkien berandutze-interesak.

.....(e)n,(e)koaren (e)(a)n.

Sinadura

2021eko abenduaren 31, ostirala



II. ERANSKINA

KONTROL-ESKUMENAK BERMATZEKO, ESKUBIDEAK ETA SARBIDEAK EMATEKO KONPROMISOA

..... jaunak/andreak (NAN zk.:),
 entitateko (IFZ:; zerga-egoitza:)
 ordezkaría da (zeregin hauek betetzen ditu:) eta, STEPeko baliabideen bidez finantzatutako laguntzen onuradun den heinean, «Lan merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak» deritzon 23. osagaian definitutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketan garapenean, adierazten du ordezkatzen duen entitateak konpromisoa hartzen duela eskubideak eta sarbideak emateko, Batzordeak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Europako Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta estatuko agintari eskudunek dagozkien kontrol-eskumenak betetzeko aukera dutela bermatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko (EB, Euratom) 2015/1046 Erregelamenduaren («Finantza Erregelamendua») 129.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

....., 2022koarena.

Sin.

Kargua:



2021eko abenduaren 31, ostirala



III. ERANSKINA

DATUEN LAGAPENARI ETA TRATAMENDUARI BURUZKO ADIERAZPENA, SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN (STEP) BARRUKO JARDUKETAK EGITEARI DAGOKIONEZ

..... jaunak/andreak (NAN zk.:),
 entitateko (IFZ:; zerga-egoitza:) ordezkaria da (zeregin hauek betetzen ditu:), eta, STEPeko baliabideen bidez finantzatutako laguntzen onuradun den heinean, «Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak» deritzon 23. osagaian definitutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketaren garapenean, adierazten du ezagutzen duela aplikatu beharreko araudia, eta, bereziki, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22. artikulua apartatu hauek:

1.– 2. apartatuaren d) letra: «Suspertze eta erresilientzia planaren barruan erreformak eta inbertsio-proiektuak egitera bideratutako neurriei dagokienez, funtsen erabileraren auditoria eta kontrola egiteko, datu hauen kategoria harmonizatuak biltzea, bilaketak egiteko aukera ematen duen formatu elektronikoan, eta datu-base bakarrean:

i. Funtsen azken hartzailearen izena;

ii. Kontratistaren eta azpikontratistaren izena, funtsen azken hartzailea botere adjudikatzailerak bada Batasuneko edo estatuko kontratazio publikoaren arloko zuzenbidearekin bat etorrira;

iii. Funtsen hartzailearen edo kontratistaren benetako titularren izen-abizenak eta jaiotza-data, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikulua 6. puntuan definitutakoaren arabera (26);

iv. Suspertze eta erresilientzia planaren barruan erreformak eta inbertsio-proiektuak egitera bideratutako neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko osoarekin batera. Mekanismoaren esparruan ordaindutako funtsen eta Batasuneko beste funts batzuen zenbatekoa zehaztu behar da».

2.– 3. apartatua: «Artikulu honen 2. apartatuaren d) letran aipatutako datu pertsonalak Batasuneko estatuak eta Batzordeak baino ez dituzte tratatuko, aurrekontu-kudeaketa onartzeko auditoriaren eta 15. artikulua 2. apartatua eta 23. artikulua 1. apartatua aipatutako akordioaren aplikazioarekin lotutako funtsen erabilerarekin zerikusia duten kontrol-prozeduren ondorioetarako, eta auditoriak edo prozedurek dirauten denboran. Batzordearen kudeaketa onartzeko prozeduraren barruan, EBFTren 319. artikuluaekin bat etorrira, Mekanismoak txostenak aurkeztu beharko ditu Finantza Erregelamenduaren 247. artikuluan jasotako finantzei eta kontu-emateari buruzko informazio integratuaren esparruan, eta, zehazki, bereizita, kudeaketari eta etekinari buruzko urteko txostenean».

Azaldutako esparru juridikoa dela bide, adierazten du baimena ematen duela datuak lagatzeko eta tratatzeko, aipatutako artikuluetan berariaz jasotako xedeetarako.

....., 2022koarena.

Sin.

Kargua:



2021eko abenduaren 31, ostirala



IV. ERANSKINA

**SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANEAN (STEP) EZARRITAKO
ZEHARKAKO PRINTZPIOAK BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

..... jaunak/andreak (NAN zk.:),
 entitateko (IFZ:
; zerga-egoitza:
) ordezkaria da (zeregin
 hauek betetzen ditu:), eta, STEPeko baliabideen bidez finantzatutako laguntzen onuradun den
 heinean, «Lan merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak» deritzon 23.
 osagaian definitutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketaren garapenean, adierazten du
 ordezkatzeko duen entitateak konpromisoa hartu duela estandar zorrotzenak aintzat hartzeko arau juridikoak,
 etikoak eta moralak betetzeari dagokionez. Horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu iruzurra,
 ustelkeria eta interes-gatazkek prebenitu eta detektatzeko eta, ez-betetzetik hautemanen gero, haien berri
 emango die agintari eskudunei.

Osagarri gisa, STEPen edukia kontuan hartuta, konpromisoa hartzen du ekonomia zirkularraren
 printzipioa errespetatzeko eta ingurumenean inpaktu negatibo esanguratsuak saihesteko («do no significant
 harm» printzipioaren ingelesezko siglak: «DNSH»), plan horren barruan egiten diren jarduketetan. Halaber,
 adierazten du ez duela finantzaketa bikoitzik eta, duen informazioaren arabera, ez dagoela bateraezintasun-
 arriskurik Estatuko laguntza-araubidea dela eta.

....., 2022koarena.

Sin.

Kargua:

